

29. atala: Taldean

# Tatuajeak

## ENTZUN AURRETIK

29.1- Entzungaia tatuajeei buruzkoa da. Komentatu taldean:

- Zuen ustez, protagonistaren batek izango al du tatuajeren bat? nork?
  - Eskisabelek
  - Tasiok
  - Kevinek
- Gustatzen zaizkizue?
- Aldatu al da gizartearen jarrera tatuajeen aurrean?
- Pertsonari buruzko aurreiritziren bat ematen dizuete?
- Egingo zenukete? Nolakoa? Non?



Ahal baldin baduzue, begiratu Interneten, aukeratu bat eta esan zergatik aukeratu duzuen.

## ENTZUN BITARTEAN

29.2- Binaka jarrita, eman erantzun zuzena:

**1. Zein da bi astronautetan azal-garbia?**

- Tasio
- Kevin

**2. Zergatik dio Kevinek nahi duen tokikoa dela?**

- Herrialde desberdinetako tatuajeak dituelako.
- Mapa bat marraztu duelako azalean.
- Ez delako euskaldun sentitzen.

**3. Lana bilatzerakoan ...**

- Kevin ez da fidatzen tatuajeak dituztenekin.
- tatuajeak ez dituztenak ez dira oso fidagarriak, jendearen iritziz.
- tatuajeak dituztenak hartzen dituzte soilik.

**4. Tatuajerik ez izatea...**

- aurrerakoia eta irekia izatea da.
- gehienentzako normala da.
- zentzuduna izatea da, Tasioren ustez.

## 29. atala: Taldean

## 5. Tasioren senarrak...

- badu tatuaje bat.
- tatuaje bat zuen, baina kendu egin zuen.
- tatuaje bat zuen, baina Tasio ezagutu baino lehen ezabatu zuen.



## ENTZUN ONDOREN

29.3- Binaka jarraituz, proposatu taldekide bakoitzari zein tatuaje egingo zenieketen eta non. Komentatu talde handian zuei egokitutakoaz zer pentsatu duzuen.

## Adibidez:

- *Guk Xabierri loro txiki bat egingo genioke bizkarrean, gelako berritsuena delako.*
- *Nik bizkarrean egin beharrea gehiago ikusten den lekuren batean egingo nioke...*



29. atala: Taldean

## Transkripzioa (02:26)

- K- Aizu, Tasio, zu azal-garbi horietakoa zara, ezta?  
 T.- Azal-garbi?  
 K- Bai, badakizu, tatuajerik ez duen horietakoa.  
 T- Bueno, hala duk, bai.  
 K- Banengoen bada, ni. Begirutzen zaitudan bakoitzean ez dut inon ezer ikusten-eta.  
 T- Begirutzen didakeanean?  
 K- Bada, nik, tatuaje japoniar bat, maoriar bat, chicano-estiloko pare bat...  
 T- Bai, klaro hi japoniarra, maoriarra eta txikanoa haizelako.  
 K- Ni, nahi dudan tokikoa naiz. Eta zu zer zara, bada?  
 T- Euskalduna, eta kito. Ez diat azalean mapa bat margotu behar nongoa nauken jakiteko.  
 K- Mapa? Azalean? Zuk eta zure modukoek, zilborrari soilik begirutzen diozue!  
 K- Eta tatuajerik ez izateak ez dizu arazorik sortu zure bizitzan?  
 T- Ze arazotaz hari haiz?  
 K- Lana bilatzerakoan, adibidez. Nik uste jendea ez dela fidatzen tatuajeak ez dituzuenekin.  
 T- Bueno, batzuetan nabaritzen diat begiradaren bat edo, igerilekuetan edo gimnasioan, eta... baina inork ez zidak ezer aurpegira esaten.  
 K- Ez direlako ausartzen. Beldurra ematen duzu tatuajerik gabeko gorputz iletsu eta garbi horrekin.  
 T- Ba! Hik, ordea, beti daukak zeresana.  
 K- Oso tipo aurrerakoia eta irekia naizelako! Niri berdin zait zure gorputz zuritxo hori. Badakizu, erdi-japoniarra, erdi-maoriarra, erdi-txikanoa naizelako.  
 K- Bada, egun, oso gutxi zarete tatuajerik ez duzenak.  
 T- Itxaropen guztia galdua ez dagoen seinale.  
 K- Itxaropena?  
 T- Bai, zentzudun jendea geratzen gaituken itxaropena.  
 K- Ze zaharrunoa zaren, Tasio... Eta senarrak, ez du tatuajerik?  
 T- Bazian, baina ezabatu egin zian aspaldi.  
 K- Zuk eskatu zeniolako?  
 T- Gutxi gorabehera.  
 K- Zer da, bere mutil-lagun ohiaren izena zeukala tatuatua?  
 T- Halako zeozer.  
 T- Ziur nagok Eskisabel kapitainak ere ez daukala tatuajerik.  
 K- Bada, ez ezazu horren alde apusturik egin.  
 T- Bada, eskua sutan jarriko nizek.  
 K- Eta erre.  
 T- Erre? Nik ez zioat sekula tatuajerik ikusi!  
 K- Toki ezkutuan duelako!  
 T- Baina...eta hik nola dakik hori?

## Erantzunak

### 29.2.-

- 1.- Tasio.
- 2.- Herrialde desberdinetako tatuajeak dituelako.
- 3.- tatuajeak ez dituztenak ez dira oso fidagarriak, jendearen iritziz.
- 4.- zentzuduna izatea da, Tasioren ustez.
- 5.- tatuaje bat zuen, baina kendu egin zuen.